

## JON SARASUA

Deskribapena: Kike herriko kalean ikusten dugu eta planoak zabaltzerakoan “tamaina” hitza agertzen da.

Kike: Harrigarria, ezta? Nola liteke, geure burua hain txiki ikustea, tamainaz, hain txikiak ez garenean. Ba kontu hau, Jon Sarasuak argituko digu.

Deskribapena: Kike oinez badoa eta ondoren Jon Sarasuaren ondoan ageri da.

Kike: “Beno, Jon, goazen harira. Zergatik ikusten dugu geure burua horren txiki, hain txiki ez garenean?”

Jon: “Nik uste dut erraza dela, ezta? Erraldioen inguruan gaudelako, bi erraldoiren barruan nolabait esanda, eta hirugarren bat ere alboan daukagula, ezta? Ingelesa. Orduan, horiekin konparatuta txikiak gara, oso txikiak ere bai, baina munduko batzuekin bestekoarekin esan dezakegu ez garela harri kozkorak, harri kozkorak garela ezta.”